

# Angeles Sorazu (1873-1921)

Villasante, Luis  
Arantzazuko Santutegia  
20567 Arantzazu

BIBLID [0212-7016 (1997), 42: 2; 275-283]

---

*Zumaian jaioa; arrantzaleen alaba. Familia Donostiara joan zen bizitzera, eta Tolosara geroago. Zazpi anai-arreba izan ziren: Florencia —hala baitzuen izena— adinez hirugarrena zen. Tolosan bizi zirela, Elozegi txapel fabrikari lan egin zuen. Hein bat mundutarrak ziren olgetarako zaletasun aldia izan zuen; gero federa bihurtu zen eta bere burua Jainkoari eskaini zion. Bizieraz erabat aldatu zen eta moja sartzea erabaki zuen Valladolideko Concepción-ean. Moja-saririk ez zuenez, abeslari gisa sartu zen. Bera sartu zenean, moja gutxi eta edadekoak ziren bertakoak. Baina berak egoera hura aldatu zuen, Komunitatean izpiritu berria sartuz eta bokazio kopurua gehitzea lortuz. Bere izpirualitatea izaera andremariar sakonekoa zen. Idatzi zuen hainbat liburu eta liburuxka bera hil ondoren argitaratu dira.*

*Giltz-Hitzak: Angeles Sorazu. Biografia*

*Nació en Zumaya; hija de pescadores. La familia se trasladó a vivir a San Sebastián y más tarde a Tolosa. Fueron 7 hermanos: Florencia -que así se llamaba- era la tercera en orden de edad. Viviendo en Tolosa, trabajó en la fábrica de boinas de Elozegi. Conoció una época de afición a diversiones un tanto mundanas; después tuvo una conversión y entrega total a Dios. Cambia totalmente de vida y decide entrar monja en la Concepción de Valladolid. A falta de dote, es recibida como cantora. Al ingresar ella, las monjas eran pocas y de edad. Pero ella logró cambiar el panorama, infundiendo en la Comunidad un espíritu nuevo y también un aumento de vocaciones. Su espiritualidad tiene un marcado cariz mariano. Es nombrada Abadesa y seguirá en el cargo hasta su muerte. Escribió diversas obras y opúsculos, que se publicaron después de su muerte.*

*Palabras Clave: Angeles Sorazu. Biografía*

*Née à Zumaya; fille de pêcheurs. La famille vint habiter à Saint Sébastien et plus tard à Tolosa. Florence - c'est ainsi qu'elle s'appelait - était la troisième de 7 frères et sœurs. Habitant à Tolosa, elle travailla à la fabrique de bérêts d'Elozegi. Pendant une certaine époque elle mena une vie plutôt mondaine pour ensuite se convertir et se consacrer totalement à Dieu. Elle change complètement de vie et décide d'entrer comme nonne à la Conception de Valladolid. Faute de dote, elle est reçue comme chanteuse. A son arrivée, les nonnes sont âgées et peu nombreuses. Mais elle réussit à changer le panorama, en communiquant un esprit nouveau à la Communauté ainsi qu'une augmentation des vocations. Sa spiritualité est marquée par un aspect marial. Elle est nommée Abbess et le sera jusqu'à sa mort. Elle écrit plusieurs oeuvres et opuscules publiés après sa mort.*

*Mots Clés: Angeles Sorazu. Biographie.*

Angeles Sorazu (1873-1921). Zumaian jaioa eta Valladoliden hila. Arrantzale-familia bateko alaba.

Berberak aitortzen duenez, arrantzale-kastakoa izanarren, aita ez zen itsasora joaten, baina itsasotik zetorren arraina hartu eta saltzen ibiltzen zela, edo eta saltokietara eramaten. Aitaren zeregin hori errazteagatik, familia Donostiara aldatu zen, zeren orduan Zumaian ezpaitzen trenik eta Donostian, berriz bai<sup>1</sup>.

Etxeko anai-arrebak zazpi ziren, eta bera hirugarrena izan zela berberak aitortzen digu<sup>2</sup>.

Eta hemen dator bere izenaren auzia: "Servidora fue la tercera. Me llamaba Florencia"<sup>3</sup>. Berberak esaten digu, bada, Florencia zuela izena; hala ere, udaletxeko liburuan Prudencia deitzen zela esaten zaigu.

Anai-arreba horietatik batzuk gazterik hil ziren, eta beste batzuk geroago, ez hain gazterik.

Sorazuren anaietatik bat, Jose Manuel, fraide frantziskotar egin zen, laiko mailatekoa. Beraren ametsa zen Jesusen lurraldera joan eta hango Kustodiako seme izatea eta hantxe hiltzea. Eta baita lortu ere. Han gaixorik zeuden fraideen zaintzale izatea izan zuen ofiziotzat, eta bai Kustodiako kantari-taldekoka ere izan zen.

Fraide sartu zenean, han Lur Santuan, izena aldatu zuen: Fr. Pedro Regalado, alegia, lehengo izenaren orde.

Noizean behin etortzen zen etxeokak bisitatzera, eta noski, Valladoliden monja zegoen bere arreba ere ikusten zuen. Behin, adarra jotzeagatik edo, egin zion honi karta bat, protestante-edo sartu zela esanez. Ez zen makala izan arrebak hartu zuen nahigabea. Gero beste bat egin zion dena gezurra zela esanez, eta trankil egoteko.

Nola zuen izena gure Sorazuk? Hemen hasten gara lehenengo istiluarekin. Udaletxeko liburuan *Prudencia* deitzen zaio. Elizako liburuan, berriz, Florencia, baiña zuzenduta dago, eta dirudienez, lehenago Prudencia irakurtzen zen hor ere. Gainera, berberak aitortzen du Autobiografian Florencia zuela izen<sup>4</sup>. Nola konpontzen da hori udaletxean dagoen Prudenciarekin? Ez dakit, hor dugu istilu bat, baina ez naiz hortan luzatuko. Bego, bada, aipatze hutsarekin.

Gure Florentxik, bada, bazuen anaia bat, postulante gisa edo, Zarauzko frantziskotarren komentura joan zena. Hobeki esan, bi postulante bildu ziren han –bata Sorazuren anaia, eta beste bat–. Lurralde Santuko errebista bat han –Zarautzen– ikusi zuten, eta hara joateko eta han bizi izateko –Jesus bizi izan zen lurrean, alegia– gogo mina sartu zitzaizen biei. Har-ema-nak izan zituzten Lurralde Santuko komisario batekin eta hark erraztu zizkien hara joateko bideak.

Ama Sorazuren anaia honen izena: Jose Manuel. Lur Santura betirako joatea zen beraren ametsa, han bere zerbitzuak prestatzeko. Eta halaxe egin ere zuen.

1. Ikus Autobiografiaren lehen kapitulua, 14. orr. (lehen edizioa)

2. Autobiografia, lehen kapitulua, 22. orrialdea.

3. Autobiografia, lehen kapitulua, 23. orrialdea.

4. "Me llamaba Florencia", *Autobiografía*, capítulo I, pag. 23.

Beraz, Jose Manuel honek Lur Santuko Kustodian jantzi zuen habitua, han egin zuen Nobiziadua, profesa etab. Hantxe bizi eta hilko da. Fraide sartzean, Fr. Pedro Regalado izena hartu zuen. Han, Lur Santuko eri edo gaixorik zeuden fraideen erizain trebea izan zen, eta bai hango abesbatzaren kantaria ere. Noiztik noizera, ordea, egiten zituen osterak, etxeakoak etab. ikusteko, eta, noski, Valladoliden monja zegoen araba ere bisitatzeko. 1948. urtean hil zen Palestinan.

Florentxiren familia, berriz, Zumaiatik Donostiara aldatu zen –gorago esan dugunez–, eta gero Tolosara. Hemen, Tolosan alegia, Florentxi Elosegiren txapel-fabrikako langile izan zen eta bai sariren bat irabazi ere, lanean ipintzen zuen ahaleginagatik. Maria Cristina erreginak eman zion sari hori eskura<sup>5</sup>.

Autobiografiaren lehen kapituluan Donostiako kale baten izena aipatzen digu Florentxik. Liburu inprimatuan oker jarria dago, ordea: Calle Reyuelo jartzen du, Puyuelo esan beharrean. Sorazuk, berriz, zuzen dakar izena bere esku iskribuan.

Tolosa izango da, bada, Florentxiren azken bizilekua Valladoliden monja sartu arte.

Esan beharrik ez dago Florentxi beti izan zela Jainkozale eta elizkoia eta karitate handi-koa pobreentzat (ahal zuen neurrian, noski). Baina Florentxi, Tolosan bizi zen aldian, munduko jolas eta zorakerietara gehiegixko zaletu ere egin zen, nunbait. Hori bai, Elizako gauzak eta txapel-fabrikako lanak zintzo betetzeari ezer kendu gabe. Eta behin, San Pedro eguna zelarik, 1889an, Leaburuko erromeria, eta Florentxi hara doa. Etxera itzuli, berriz, Anjelusa pasata. Amarentzat erositako erroskillak, honek ez zituen hartu nahi izan. Kolpe gogorra izan zen hura Florentxirentzat. Kolpea, eta bai bizi berri baten hasiera ere.

Jantziak eta lehengo lagunak aldatu, eta “beata” kutsuko talde berri batekin biltzen hasen da orain. Munduko jolasak utzi, eta otoitz-bizitza berria egiten hasiko da, meza egunero entzunez, eta otoitz mentalean eta penitentzitan arituz, etab.

Klausurako monja sartzeko gogoia pizten da Sorazuren gogoan, baina hortarako dotea behar eta Sorazuren familiakoak pobreak izan alabari dotea emateko. Apaiz batek esan zion musika-gaietan zerbait ikasi ezkerre zela komentu batzuetan sartzea. Hala egingo du, bada, Florentxik Valladoliden Konzezioko monja-konbentu batean sartuz. Hori gertatu zen 1891. urteko udaran.

Sartu zenean Florentxik ez zuen komentu hura behar bezain ongi ezagutzen, bestela ez zen sartuko, baina behin sartuz gero... Monjak oso gutxi ziren, zaharrak, dirurik gabe –norbaitek zeukatena ostu zielako– beren bizitza espirituala zaintzeko oso motelak zirenak; baina pozik hartu zuten gure Florentxi eta harrera ona egin zioten, gainera, etxe komentu haren etorkizuna bera izango zela etab. esanez. Haiek ez zekiten ongi zenbateraino zen egia esaten zuten hori.

Sorazuk eskatzen zion Ama Birjinari, arren, bokazio berriak bidaltzeko, zeren hain guti izanik, ez zen posible deus onik egitea. Eta bai, bokazio berriak hasi ziren etortzen, erruz gainera, eta Sorazu bera izaten zen monja berri horien irakasle, gidari eta maistra. Hitz batean esateko, izpiritu berri bat sartu zuen gure Florentxik eta aste gutxiren buruan arras berritu zen komunitadarean aurpegia, eta bai bihotza ere.

Eta zein izan zen berak ixuri zuen izpiritu berriaren arima?

5. Ikus Autobiografia, III kapitulua, 39 orrian.

Ama Birjinarenganako debozio jatorra. Jesusengana joateko Ama Birjina dela biderik onena erakustea.

Obrak ere idatzi zituen, noski, bera hil ondoren argitaratu zirenak, hots:

1. *Autobiografía*, Valladolid, 1929. Nazario Pérez jesuitak argitaratua. Edizio berria Luis Villasantek aterea (Madrid 1990).

2. *La Vida Espiritual coronada por la triple manifestación de Jesucristo*, Madrid 1956 (2ª edición).

3. *Itinerario Místico de la Madre Angeles Sorazu*. Correspondencia espiritual con el P.Mariano de Vega, su director espiritual, editada y anotada por el P.Melchor de Pobladura OFM Cap. 3 tomos.

4. *La ovejita de María*.

5. *Exposición de varios pasajes de la Sgda. Escritura*, Salamanca 1926.

6. *Opúsculos Marianos*, 1928.

Sorazuk gomendatzen du Ama Birjiña har dezagula bide bezala Jesusengana joateko<sup>6</sup>.

Esan behar da Aita Nazario Pérez jesuita izan zela Sorazuren libururik gehienak argitara zituen, egileak berak –oraindik bizi zenean bialdu zizkiolako, nahiz eta aurpegiz ez zuten elkar ezagutzen; baina bazekien Sorazuk Andre Mari zale aparta zela Nazario Pérez, eta horregatik beraren eskuetan utzi zituen idazkiak.

Ama Sorazuren kausa Erroman sartua dago jadanik.

Sorazu komentuan sartu zenean, monjak bi taldetan bitartuak zebiltzan: talde bat orduko Abadesaren alde, eta bestea, kontra. Sorazu, aldiz, bere bidetik eta bakarti zebilen. Goitik hartzen zituen mesedeak inori esateko, lotsa zen.

Garai hartan Valladoliden ez zegoen Frantziskotar edo Kaputxinoen komenturik bat ere. Egiten zituen penitentzi eta barauengatik gaixotasun latzak sortuko zaizkio, etab.

Komunitate barruan, aldiz, gure Florentzi bakarti biziko da. Bera ez zen talde batekoa eta ez bestekoa. Benetako direziorik ere ez du eta goitik hartzen zituen grazi paregabeak inori esateko, ez apaiz eta ez inori, ez da gauza. Egiten zituen penitentzi, gau galtze eta barau ikaragarriak haren osasuna asko hondatu zuten.

Sorazuk, bere profesia egin ondoren, izan zuen lehen kargua bigarren tornera izatea izan zen. Horrek esan nahi du bazuela beste monja bat bere gainean zegoena eta harengandik asko sufritu beharko du, nahiz eta geroago tornera zahar hori erabat bere alde jarriko den.

Monjek hiru urtetik hiru urtera kapitulua egiten zuten abadesa berria edo lehengo bera izendatzeko. Behin eta berriz hautatu zuten gure Florentxi, baina Artzapezpiku jaunak izendapena onartzen ez. Sorazuk ez zeukalako kargu horretarako behar zen adina, noski.

Direzio espiritualik gabe bizi zen Florentxi, guztiz bakarti, eta egun batez, Ama Sortzez Garbiaren bederatzirrena deboziorik handienaz ospatu ondoren, Jauna guztiz haserre ager-

6. "Exposición de varios pasajes de la Sagrada Escritura", Salamanca, 1926; "Opúsculos Marianos", Valladolid, 1928.

tzen zaio direzio espiritualik ez duelako. Hau 1904ean gertatu zen. Jainkoak esan zion, gainera, agindu hori betetzen ez bazuen, betiko bere eskutik lagata utziko zuela<sup>7</sup>.

Ez da erraza esatea, Jainkoa hain haserre ikustearekin Sorazuk sufritu zuena. Hartu zuen, bada, zuzendari espirituala. Lehendabizikoa, Andres Ocerin Jauregui izan zen, euskalduna, baina honek ez zuen luzaroegi iraun kargu horretan. Dena dela, berau izan zen Ama Sorazuren lehen direktore edo zuzendaria.

Jainkoak Sorazuren direzio espiritualaren beharra azaltzean, beste zerbait ere bazuen gogoan: Sorazu begiz joa zeukala, alegia, komentu hartako abadesa izateko, baina ez zion kargu hori eman nahi harik eta honek zuzendari espiritual bat izan arte.

Azkenik, 1904ko otsailaren 21ean ama Sorazu abadesa izendatzen dute monjek. Sorazuk, berriz, eskatzen die, bai Jainko eta bai Ama Birjinari, arren, eurak izan daitezela etxe haren benetako nagusiak. Egun hartan (1904-II-21) Sorazuk eskatu zion Komunitateari Ama Birjina abadesatzat har zezan, eta hala egin zuen honek.

Eta urte hartan bertan, Abenduaren zazpian, komunitate osoak Ama Sortzez Garbia hautatzen du beti-betiko Abadesatzat<sup>8</sup>.

Hemendik aurrera, hil arte, Ama Sorazu beti Abadesa izango da, hiru urtetik hiru urtetara beti izendatua izaten zelako.

Eta lan hau gehiegi ez luzatzeagatik, falta dena puntu labur batzuetan azalduko dugu:

1) Ama Sorazuren denboran eta bai bera hil ondoren ere, komunitate edo komentu hura asko hazi zen bokazioetan eta bai monja haiek erakusten zuten sugarrean ere.

2) Horrek esan nahi ote du Mistikari ematen ziotela garrantzia moja haiek? Ez, presiski. Mistika hitza esanahi bat baino gehiagotan erabili ohi da eta nahiago dut hemen ez erabili. (Izan ere, esanahi bat baino gehiagotan erabili ohi da eta hortik nahastea etor daiteke).

Kristau espiritualitatean Mistika deitzen da espiritualitatearen solairu berezi bat, eta hartan bizi direnak badituzte otoitz egiteko grazia edo modu apartak. Beraz, Mistika esaten denean, kristau espiritualitateko solairu berezi hori esan nahi da. Eta Sorazuren komentuan ez monja denak, noski, baina bai zenbait gelaune horretan bizi ziren. Eta gelaune horretan bizi zirenak, Jainkoak eraginda, noski, bazituzten otoitz egiteko era bereziak, era mistikoak, alegia.

3) Arimako Zuzendariak ere bat baino gehiago izan zituen Sorazuk bere bizitzan zehar. Baina guztien artean printzipalena, Aita Mariano de Vega, kaputxinoa, León-en eta Bilboko Basurton bizi izan zena, kaputxino gazteen irakasle bezala. Kargu hori zuelako, ezin zuen beti Valladoliden egon, Ama Sorazu eta beste monjen ardurak izateko. Horregatik Ama Sorazuren direzio espirituala eskutitzen bidez izan zen gehienik, eta horri esker dugu gaur argitaratua bien arteko karta piloa<sup>9</sup>.

Esan dezagun, azkenik, Mistika alorreko grazia asko hartu zituela Ama Sorazuk eta mesederik asko egin ziotela Jainko-bidean aurrera joateko. Baina berak grazia horiek aintzat hartuarren ez zituen jainkotzen.

7. Ikus *Autobiografía*, III. liburua, 334. orrialdea

8. Id. *ibid.*

9. Ikus beherago ematen dugun Ama Sorazuren bibliografia.

Gauza ederrik asko dago Ama Sorazuren autobiografian, baina dena kontatzeko ez dugu astirik. Aipamen motx batzuk egingo ditugu, halere.

Zer moduzkoa zen gure Abadesaren jokabidea Jainkoari buruz? Lehenik, Jainkoari eskerrak ematea. Zeregin honetan ematen zuen denbora dexentea<sup>10</sup>.

Gero, berriz, 1909 edo 1910. urtean, Jainkoa gizon egin zelako eskerrak emate ordez, beste ejerjizio bat egunero egiten hasten da, hots, Jainkoari zorionak ematea, den bezalako delako<sup>11</sup>.

Asko sufritu eta asko poztu, hori izan zen Sorazuk egin zuen bizimodua.

Baina dena esateko astirik ez dugu eta bukatu beharrean gara. (Ez goaz, bada, gehiago luzatzera). Osasun txarra zuen eta horretan berak ere bazuen errua, egiten zituen penitentiengatik etab. Baina bera hil zenean, komunitatea askoz hobeturik utzi zuen. Eta gaur egun Erroman haren prozesua –Eliz barrutikoa, alegia, bukatu ondoren– hasia dago jadanik.

4) *Mistikako mailadia eta Ama Sorazu*.- Avilako Santa Teresak utzi digu bere liburuetan nolako den (edo, hobeki esan, nolakoak izan ziren berak Mistika-barnean igaro zituen bideak), eta maiz hartu da eredu hori denontzat balio behar balu bezala. Hemen esan behar da ez ditugula gauzak nahasi behar.

Mistikako graziak hor dira, noski, eta santutasunerako duten eragina eta balioa ez dago ukatzerik. Baina Jainkoa bera da gauza guztien gainetik bilatu eta maitatu behar duguna. Beste gauza guzti horiek nahi izatea eta bilatzea zilegi da, noski, Jainkoaren borondateaz ados egonik beti ere.

Gainerakoan, Sorazuk argi eta garbi erakusten digu Jesus bilatzean eta maitatzean dagoela santutasunaren gora-behera guztia. Horretan saia gaitezen. Eliza Amak bere Liturgiaren bidez jartzen dizkigu begien aurrean Jesusen bizitzako misterioak. Maita eta segi dezagun Jesusen pertsona eta eredu hori<sup>12</sup>.

#### *Ama Sorazuren bibliografiaz zertxobait*

Ama Sorazuk gehien maite eta erabiltzen zuen liburua kristau Dotriña edo Katezismoa zen. Eliza Amari oso atxikia zen. Eta Ama Birjinari, noski. Eliz barrutiko prozesua Valladoliden bukatu dago. Orain Erromakoari eman zaio hasiera. Baina esan dezagun zerbait haren obra argitaratuei buruz.

Ama Sorazuk, hil aurretik, bere idazkiak korreoz bidali zizkion Aita Nazario Pérez jesuitari. (Hau ere Valladoliden bizi zen, baina ez zuten elkar ezagutzen). Norbaitek emanik, Sorazuk Aita jesuita honen idazki bat irakurri, eta Andra Mari zalea zela ikusi zuen. Eta beste gabe, beronen eskuetan utzi zituen bere idazkiak. Eta Sorazu hil zenean, Aita honek Ama Sorazuren idazlanak argitaratu zituen<sup>13</sup>.

10. Ikus *Autobiografía*, IV. liburua, 1 kapitulua, 259. orr.

11. *Autobiografía*, lib. IV, cap. 14, p. 354.

12. *Autobiografía*, lib. IV, cap. 14, p. 354.

13. Zehazki mintzoz esan dezagun Sorazuren obra denak ez direla Aita Nazario Pérez-ek argitaratuak izan, ipintzen ditugun argibideetatik ikus daitekeenez.

Hona hemen liburuon zerrenda:

1. "*Vida de la R.M. Angeles Sorazu*". 1ª parte o *Autobiografía*. "Mi historia". Revisada y anotada por el R.P. Nazario Pérez, S.J. Valladolid. Imp. Casa Social Católica, 1929. 375 orrialde.

2. R.M. Angeles Sorazu, Concepcionista franciscana. *Opúsculos Marianos* revisados y anotados por el P. Nazario Pérez S.J. Valladolid. Imp. Casa Social Católica, 1928.

Tituluan bertan adierazten denez, Sorazuren lan bat baino gehiago dator liburu honetan. Luzeena, irudiz apaindua, "Meditaciones sobre el misterio de la Encarnación". Ama Birjinak eta Jesus haurrak zaintzen eta hondamenditik salbatzen dute artaldetik ihesi ibili den ardi bat. Irudi asko ditu ardiaren gora-beherak azalduz. Valladolid, Imp. Social Católica, 1929.

3. *Exposición de varios pasajes de la Sagrada Escritura* por la R.M. Angeles Sorazu, Abadesa de las Concepcionistas Franciscanas de Valladolid. (Aparte de "La Vida Sobrenatural", Salamanca 1926. Ehun eta hogeita hamasei orrialde (vol. de 136 págs.).

4. *La Vida Espiritual coronada por la triple manifestación de Jesucristo*. A Jesús por María. Obra escrita por la R.M. Sor Angeles Sorazu, Abadesa del convento de la Purísima Concepción (Concepcionistas franciscanas de Valladolid). Revisada y anotada por el P. Nazario Pérez S.J. Valladolid. Imprenta de la Casa Social Católica, 1924. (Eta beste argitaraldi bat oraindik Madriden 1956. urtean. Aita Melchor de Pobladura kaputxinoak argitaratua. Centro de Propaganda. Cervantes 40, Madrid).

5. *Itinerario Místico de la Madre Angeles Sorazu. Correspondencia epistolar con el P. Mariano de Vega, su Director Espiritual*. editada y anotada por el P. Melchor de Pobladura, O.F.M. Cap. Hiru bolumina. Madriden argitaratuak honako urte hauetan: 1942, 1952 eta 1958an.

6. M. Angeles Sorazu, Concepcionista franciscana. Autobiografía espiritual. Edición de Fr. Luis Villasante, O.F.M. Editores: Fundación Universitaria Española - Concepcionistas Franciscanas. Vol. de 719 páginas (zazpirehun eta hemeretzi orrialde). Madrid, 1990.

7. Angeles Sorazu. Una maravillosa experiencia de Dios, por Daniel Elcid. Biblioteca de Autores Cristianos, Madrid 1986; 277 orrialde.

8. P. Luis Villasante Cortabitarte, O.F.M. Vol. I *La sierva de Dios M. Angeles Sorazu. Estudio místico de su vida*. Volumen II. *Apéndice Documental*. PP. Franciscanos de Aránzazu. Ediciones Desclée de Brouwer. Colón de Larreátegui 43, Bilbao. (Hau Villasanteren tesi doktora izan zen, Comillasen defenditua eta onartua. Bilbon argitaratua 1950. urtean. Bi tomatan.

9. Eta azkenik, egun batez hara non hartzen dudan liburu bat nire izenarekin argitaratua eta, uste dudanez, kroazieraz idatzia; honela du titulua: *Carobnost Mistickog Zivota*. Eta lapitzez honela dator titulua erderara itzulia, hots: "Encantamiento de la vida mística" (sic). Symposium, Split, 1980; 188 orrialde.

Jaunak: Kroaziera ez dut ezagutzen eta ezin esan nezake zer moduzkoa den liburu hau, baina hasieran nire izena ipintzen duenez gero, uste dut nik Comillasen egindako tesiaren laburpen bat edo, izango dela. Frantziskotar fraide bat izango dela egilea pentsatzen dut. Frantziskotar asko dago Kroazian.

Aipatutako liburuez gainera, kultura-hiztegietan etab. agertzen da noizbehinka Ama Sorazuren izena.

Frantsesez ere agertu izan da Sorazuk bere buruaz idatzi zuen bizitza. Damu dut liburuaren titulua etab. orain hemen ez izatea.

Zinez, liburu horietan mila gauza eder aurkitzen dira.

**Mistikako mailadia eta Ama Sorazu.**- Avilako Santa Teresak utzi digu bere obretan nolako den (edo, hobeki esan, nolakoak izan ziren) berak Mistika-barnean igaro zituen bideak eta gora-beherak, eta maiz hartu da eredu hori denontzat balio behar balu bezala. Hemen esan behar da ez ditugula gauzak nahasi behar.

Mistikako graziak hor dira, noski, eta santutasunerako duten eragina eta balioa ez dago ukatzerik. Baina Jainkoa bera da gauza guztien gainetik bilatu eta maitatu behar duguna. Beste gauza guzti horiek nahi izatea eta bilatzea zilegi da, noski, baina Jainkoaren boronda-teaz ados egonik beti ere.

Gainerakoan, Sorazuk argi eta garbi erakusten digu Jesus bilatzean eta maitatzean dagoela santutasunaren gorabehera guztia. Saia gaitezen horretan. Eliza Amak, bere Liturgiaren bidez begien aurrean jartzen digu Jesusen bizitzako misterioen ispilua. Maita eta segi dezagun bide hori, hots, Jesusen pertsona eta eredia<sup>14</sup>.

Agertzen ote da Sorazuren bizitzan zer-edo-zer Ama Agredari buruz? Baita. Sorazuk komentuko bere bizitzaren lehen urteetan ezagutu zuen Agredaren liburua, hots, Mística Ciudad de Dios, jantokian irakurtzen zelako, noski. Ahal izan zuen bezain laster, eraman zuen liburu hori bere gelara eta bai gozoz irakurri ere. Baina entzun diezaiozun berari:

“Más tarde conocí la Mística Ciudad de Dios, cuya lectura interesó mi corazón vivamente y en adelante no pude prescindir de ella. Además de escucharla en el refectorio, donde empezó a leerse con frecuencia, la leía y meditaba en la celda con grandísimo consuelo y aprovechamiento. La usé por espacio de muchos años con afición creciente, y aunque al presente no la leo, la escucho con amor y respeto cuando se lee en Comunidad y con el vivo interés que el primer día, a no ser que me lo impida causa superior”<sup>15</sup>.

Ama Agreda, Soria aldekoa zen, XVII. mendean bizi izana; Ama Sorazu, aldiz, euskalduna, joan den mende azkenean jaio eta gure mende honetan bizi izan zena.

14. Villasante, M. Angeles Sorazu. Vol. II Apéndice Documental, nº 276, pág. 237.

15. Angeles Sorazu, "Autobiografía espiritual", ed. 1990, p.130.





Angeles Sorazu\*

\*. Fotografía de la cubierta del libro de Luis Villasante. *El camino cristiano según Angeles Sorazu*. Madrid: ABL, Confies, 1994.